



Korapiloak askatzeko unea

Uztailaren 2an eratuko da Europako Parlamentuaren diputatuen ganbera. Zatikatzeko parlamentario handiko testuinguruan, lehenengo aldira popularren eta sozialisten arteko koalizioak ez du gehiengorik izango. Halere, Europa Berritu (Liberal eta Demokratikoen Aliantza hartu duen izen berria) koaliziora lotzea espero da gehiengo osoa izango lukeen hirukoa osatuz. Horrez gain, bi hereneko gehiengo kualifikatuak behar diren kasuetan hirukoak berdeen negoziatu ahal izango du.

Ezkerretik Europako Parlamentua moderatu da, Ezker Unitarioa/Iparaldeko Ezker Berdeak 14 diputatu eta sozialistek 32 diputatu galdu dituztelako ezkerreko eta eskuineko zentristen mesedetan: Berdeak/Aliantza Libreak 23 diputatu irabazi ditu eta Europa Berrituk 37. Lehenengo kasuan ekarpen nagusiak dira Alemaniako, Frantziako eta Erresuma Batuko berdeen emaitza onak, bigarren kasuan La République en Marché!-MoDem eta Erresuma Batuko liberal-demokratikoen gorakadak.

Eskuinetik Europako Parlamentua zentrifugatu egin da euroeszeptikoen igoeratik. Popularrek 37 diputatu galdu dituzte eta Kontserbadore eta Erreformisten talde euroeszeptiko biguinak 16 (15 britaniarrak). Bestela, Nigel Faragek zuzentzen duen Askatasuna eta Zuzeneko Demokrazia taldeak diputatu bat gehiago eskuratu du Brexit-aren alderdiaren emaitza onak Movimento 5 Stellaren ga-

Herrialdeen interes nazional partikularrak uztartzeko lekua izan da Europar Batasuna, baina kontraesankorrak izaten hasi direnean euroeszeptikoek hartu dute indarra. Korapiloa askatzea ez da erraza, nahiz eta bidea argi egon...

lera konpentsatu dutelako. Hazkunderik handiena baina, eskuin muturreko Identitate eta Demokrazia taldeak izan du 37 diputatu irabazita, horietatik 23 dira Italiako Lega Norden eserleku berriak.

Ez da kasualitatea Italian eta Frantzian eskuin muturrak hauteskundeak irabazi izana. Bruselan egoitza duen *Centre for European Policy Studies*-ek 1999tik 2017ra bitartean euroaren inpaktua zortzi herrialdetan aztertzen duen ikerketa bat argitaratu du. Horren arabera, euroak bi herrialdeen soilik sortu ditu onurak ikerturiko epealdian: Alemanian 23.116 euro per capita aberastu dira eta Herbehereetan 21.003 euro. Kaltetuen artean berriz, Frantzian 55.996 euro per capita pobretu dira eta Italian 73.605 euro.

Epe luzean sistema politikoak ez dira



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

legitimatzen prozedurengatik, emaitzengatik baizik. Adibide ona Europar Batasuna (EB) ez demokratikoa izan da. Populazioaren gehiengoak bizi baldintzak hobetzen zituen bitartean euroeszeptikoak gutxi ziren, baina krisi ekonomiko azaldu zenean eta EBaren erabakiak herrialde eta klase sozial batzuk kaltetu eta beste batzuei mesede egin zirenean, euroeszeptikoek gora egin zuten, bereziki kaltetu horien artean.

Herrialdeen interes nazional partikularrak uztartzeko lekua izan da EB, baina kontraesankorrak izaten hasi direnean euroeszeptikoek hartu dute indarra. Korapiloa askatzea ez da erraza, nahiz eta bidea argi egon: interes desberdinen arteko konbergentziatik interes orokor eta komuna eraikitzea pasatu behar da. Hurrengo bost urteetan federalizazioak eta demokratizazioak aurrera egiten ez badute krisia sakondu egingo da. Ez da posible EBeko aurrekontuak Danimarkakoa baino txikiagoa izaten jarraitzea, ez da posible bere erakundeak interes nazional batzuk eta elite ekonomiko batzuen interesak defendatzea nagusiki. Ezinbestekoa da integrazio eta orekatze sozioekonomikorako bidea hastea eta immigrazio politika bateratua adostea. Hori guztia posible egiteko eta EBk bere dekadentzia ondo kudeatzeko, geopolitikaren ikuspegitik AEBetatik emantzipatu behar du. Bada garaia EBk bere interesak lehenetsi eta defendatzeko, AEBen interesekin kontrajartzen badira ere. ●